



DEBAko UDALA

2016SPLE0001

1. BILERA: OHIKOA 2016-01-28

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** lehenengoa

**Eguna:** 2016/01/28

**Hasiera-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 20:00

**Onarpen-eguna:** 2016/02/25

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

### **Bertaratzeak eta irteerak**

### **Gora-beherak**



DEBAko UDALA

**Aztergaiak:**

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2015/11/26).
2. Bideen inbentarioa 2. fasea. Hasierako onespina emateko proposamena.
3. 2016 urterako hirugarren adineko zerbitzuen prezioen proposamena.
4. 2014SCOU0012 Elizburuko 1 sektoreko 3 zenbakia duen partzela besterentzeko kontratuaren aldaketa proposamena.
5. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
6. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### **1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2015/11/26)**

2015eko azaroaren 26ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

### **2.- Bideen inbentarioa 2. fasea. Hasierako onespina emateko proposamena.**

#### *Aurrekariak*

Jadanik, Debako landa bide zolatuei buruzko ondasunen inbentarioa eginda eta onartuta dago, eta proposamena da, bigarren mailako bideen inbentarioa onartzeko jardunbideari hasiera ematea.

Jardunbide administratiboa ondoko hau da:

1. Udalbatzarraren hasierako onespina.
2. Jendaurrean jartzea eta horretarako 3hilabeteko epea ematea.
3. Alegazioei erantzuna ematea.
4. Udalbatzarraren behin betiko onespina, horrela badagokio.

#### *Iritziak eta galde erantzunak*

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, beraiek ados daudela baina jendaurreko fasean azalpenak eman beharko zirela auzoka.

Alkateak erantzun du, gaia lantzen ari den teknikariak prestasuna daukala bilerak egiteko eta azalpenak emateko.

Iñigo Cambronerok, gaiaren harira esan du, plano erabilgarri bat kaleratu beharko litzatekeela jendearentzat, kartografia ulergarriarekin.


#### *Erabakia.*

Hirigintza eta Etxebizitza batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Bideen inbentarioaren 2. faseari hasierako onespina ematea eta jendaurrean hiru hilabetez jartzea.

### **3.- 2016 urterako hirugarren adineko zerbitzuen prezioen proposamena.**

#### *Gizarte Politikarako batzordearen proposamena*



## DEBAko UDALA

Iñaki Barriolak (idazkariak) udalak dituen prezioak aurkezten ditu. Era berean Itziar Diez Badiolak (Arbil elkartea) eta udala jakinaren gainean egon gabe beste prezio batzuk aurkezten ditu; dirudienez, Elena (tabernako langilea) eta Arbil elkartekoek bilera bat egin zuten beraien artean eta beste prezio batzuk adostu zituzten. Udalak ez du honi buruzko informaziorik eta arridura azaltzen du planteatutako egoera dela medio.

Batzordeak; Arbil elkartekoak ados badaude ez dutela proposaera atzera botako komentatzen dute eta beraien artean adostutako tabernako prezioak aho batez onartu ziren.

Jesus Mari Saleguik (Nagusilan) eta Jose Luis Albizu Beristainek (Bildu) oinezkoei buruz galderak egiten dituzte eta eskualde honetan beraiantzako aterpetxe bat dagoen kontsultatzen dute. Eskualdean oinezkoentzat errekurtsorik ez dagoenez, zerbait egin behar dela aipatzen da.

Podologa, ilecapaindegi eta oinezkoen prezioak aurkeztu ondoren aho batez onartzen dira.

### *Erabakia.*

Gizarte Politikarako Batzordearen eta Ondasun eta Kontuen Batzorde bereziaren proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Onartzea 2016 urterako hirugarren adineko zerbitzuen prezioak, laburpen honen arabera:

### **HIRUGARREN ADINERAKO ZENTROAREN ZERBITZU,** **ERABILTZAILEEN PREZIOAK**

#### ***TABERNA-JANTOKIKO PREZIOAK / TARIFA DE PRECIOS BAR/COMEDOR***

	<b>2015</b>	<b>2016</b>
KAFEA / KAFE	0,74	0,80
KAFE EBAKIA / CORTADO	0,78	0,90
KAFESNEA /CAFÉ CON LECHE	0,87	1
DESKAFEINATUA / DESCAFEINADO	0,87	1
ESNEA / LECHE	0,75	0,90
KAMAMILA / MANZANILLA	0,62	1
KARAJILOA / CARAJILLO	1	1,20
TXOKOLATEA / CHOCOLATE	0,94	1,20
COCA-COLA, FANTA, KAS	0,97	1,30
TONIKA / TONICA	1,08	1,20



## DEBAko UDALA

URA / AGUA	0,94	1
URA (TXIKIA) / AGUA (PEQUEÑA)	0,62	0,80
IRABIAKIAK /BATIDOS	1,10	1,20
GARAGARDOA / CERVEZA	0,95	1,30
KAÑA / CAÑA	0,99	1,30
ZURITOA / ZURITO	0,66	0,90
ALKOHOL GABEKO GARAGARDO / CERVEZA SIN ALCOHOL	1,18	1,30
KLARA / CLARA	0,95	0,90
PIKA / PICA	1,09	1,50
TXITZIZOTZAK / PINTXO	1	1,10
SALDA / CALDO	0,75	1
TORTILA OSOA / TORTILLA ENTERA	8,58	9
OLIBAK / ACEITUNAS	1	1,10
VERMOUTH	0,79	1,50
BITTER KAS	1,22	1,30
CADENAS, CHINCHON	1,19	1,30
MARIA BRIZARD	1,26	1,40
BAZKARIA	7,12	8
BAZKARI BEREZIA	19,42	10,50
TXIKITOA / CHIQUITO	0,35	0,45
ARDOA (HANDIA) / VINO (VASO GRANDE)	0,79	1
ARDO BOTEILA / BOTELLA VINO	2,17	3,50
ARDO BOTEILA BEREZIA / BOTELLA VINO ESPECIAL	3,12	5
TXIKITO BEREZIA / CHIQUITO ESPECIAL	0,78	1,50
MOSTO	0,34	0,60
KONBINATUAK / COMBINADOS	1,75	3,50
GARVEY, SOBERANO	1,19	1,50
MAGNO, TERRY	1,21	1,80
SOL Y SOMBRA	1,19	1,50
DIC	2,19	2,20
WHISKY	4,74	3
SAGARDO TXIKITOA / CHIQUITO SIDRA	0,44	0,50
SAGARDOA / SIDRA	2,22	3,50
CODORNIU EXTRA	10,59	9



## DEBAko UDALA

FARIAS	0,91	1
ZUMOAK / ZUMOS	0,98	1
TXAKOLI		1,30

<b>OGITARTEKOAK:</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
TXORIZO, SALTIXITXOIA / CHORIZO, SALCHICHON	2,12	3,50
URDAI AZPIKOA, GAZTA / JAMON SERRANO, QUESO	2,12	4
MOLETA (ARRAULTZE 1) / TORTILLA (1 HUEVO)	1,17	2,50
MOLETA (ARRAULTZE 2) / TORTILLA (2 HUEVOS)	1,66	3
URDAI AZPIKO MOLETA / TORTILLA DE JAMON	2,19	3,50
PATATA MOLETA / TORTILLA DE PATATAS	1,66	2,50
BEGETALA / VEGETAL	2,59	3,50
SOLOMOA / LOMO	2,80	4
URDAIA /TOCINETA	2,80	3
TXUKUNBERRI	2,53	

<b>RAZIOAK:</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
KROKETA TXIKIAK / MINI CROQUETAS	3,09	4
URDAIAZPIKOA / JAMON SERRANO	4,49	10
RABAK / RABAS	2,80	4,50
TXORIZO EGOSIA / CHORIZO COCIDO	3,09	3,50

### **HIRUGARREN ADINERAKO ZENTROAREN ZERBITZU,** **ERABILTZAIILEEN PREZIOAK**

<b>ZERBITZUA</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
PODOLOGIA	12,62	12,62

### **HIRUGARREN ADINERAKO ZENTROAREN ZERBITZU,** **ERABILTZAIILEEN PREZIOAK**



DEBAko UDALA

**ILEAPAINDEGIKO PREZIOAK / TARIFA DE PRECIOS PELUQUERIA**

	<b>2015</b>	<b>2016</b>
GARBITU ETA MARKATZEA / LAVAR Y MARCAR	6,68	7
PERMANENTEA / PERMANENTE	23,38	23,40
PERMANENTE ERDIA (superior) / MEDIA PERMANENTE (superior)	18,02	18,10
TINTEA / TINTE	14,40	15
TINTE ERDIA / MEDIO TINTE	11,31	11,40
MOZTEA / CORTE	4,49	5
ILEA KONPONTZEA / ARREGLO PELO	3,12	3,20
ORRAZTEA / PEINAR	2,71	2,71
ESKUZ LEHORTZEA / SECADOR DE MANO	7,73	8
KREMA / CREMA	1,55	1,60
BEKAINAK / CEJAS	1,55	1,60
DEPILAZIOA, GOIKO EZPAINA / DEPILACION LABIO SUPERIOR	1,96	2
KOLOREDUN PLIZA / PLIS COLOR	2,45	2,45
PLIS ARRUNTA / PLIS NORMAL	2,38	2,38
BITAMINADUN PLIZA / PLIS VITAMINAS	3,16	3,20
TINTE ETA PERMANENTEA / TINTE Y PERMANENTE	37,79	38
DISTIRAK / BRILLOS	22,51	22,60
APARRA / APARRA	1,67	1,70

**HIRUGARREN ADINERAKO ZENTROAREN ZERBITZU,**  
**ERABILTZAILEEN PREZIOAK**

<b>ZERBITZUA</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
OINEZKOentzat JANARIA	3,03	3,03

**Bigarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea



## DEBAko UDALA

### 4. 2014SCOU0012 Elizburuko 1 sektoreko 3 zenbakia duen partzela besterentzeko kontratuaren aldaketa proposamena.

#### *Erabakia.*

Hirigintza eta Etxebizitza batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Proteisa 2002, S.L.ri esleitutako *Elizburuko 1 sektoreko 3 zenbakia duen partzela besterentzeko* kontratuaren aldaketa onartzea, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratuaren 107. artikuluan xedatutakoaren eta espedientean agertzen den dokumentazioan azaldutakoaren arabera.

**Bigarrena.-** Kontratuaren 1.320.000 euroko (gehi BEZ) prezio berria onartzea.

**Hirugarrena.-** Esleipendunak, behin betiko bermea birmoldatu beharko du, 6.000 euroan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen arabera.

### 5.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

122	2015/11/25	Eguneko Zentrarako langilearen kontratazioa: azaroaren 26tik abenduaren 9arte	
123	2015/11/25	Udaltzaingorako langilearen kontratazioa: azaroaren 28tik abenduaren 31arte	
124	2015/11/25	Gazte asanbladari baimena udalaren proiektorea lagatzeko	2015ALES0117
125	2015/11/25	Itziar Irizar zinegotziari ezkontza zibila egiteko baimena	
126	2015/11/27	Erroldan baja ematea	
127	2015/11/27	Erroldan baja ematea	
128	2015/11/30	Eguneko Zentrarako langile bati norberaren arazoetarako ordaindu gabeko biamenaren luzapena ematea (urtarrilaren 1etik 8ra)	
129	2015/12/01	Errolda inskribapeneko kaduzitate espedienteari hasiera ematea	2015SEXT0001
130	2015/12/23	Erroldan baja ematea	
131	2015/12/23	Eguneko Zentrarako langilearen kontratazioa: abenduaren 28tik 30erarte	
132	2015/12/30	Udaltzaingorako langilearen kontratazioa: urtarrilaren 1etik 11ra	

1	2016/01/08	Hondartza, 2ko bizilagunei agindua fatxadan lehen bait lehen obrak egiteko, edozein arrisku ekiditeko eta tokia segurtasun baldintzetan mantentzeko	2015URES0025
2	2016/01/16	JM Ostolaza, 11ko lokalaren erabilera bertan behera eteteko agindua eta	





## DEBAko UDALA

		jabeari errekeritu beharrezkoak diren lanak egiteko, salatutako eragozpenak zuzentzeko.	2015URES0001
3	2016/01/16	Zirimola taldeari baimena udal proiektorea lagatzeko	2016ALES0001

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### 6.- Eskariak eta galderak.

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du, Elizburuko 1 sektorean, 3. partzelan proiektatutako Babes Publikoko Udal Erregimen Tasatuko hutsik geratu diren 3 etxebizitzaren inguruan. Jakin nahi izan du nola beteko diren.

Erantzun zaio oinarrietan ezarritakoari jarraiki beteko direla, hau da, baldintzak betetzen dituztenek eskuratu ahal izango dizuztela.

Aimar Lasa zinegotziak azaldu du, Udalbitzak, otsailaren 20an egingo duen batzarra dela eta, atxikitzeko gonbidapena egin duela eta EH Bilduko zinegotziak jadanik atxikitu direla. Asmoa da, atxikitutako zinegotzien artean ordezkari bat hautatzea, ondorioz, gonbita egin die udalbatzarkideei atxikitzeko eta gero beraien arteko ordezkari bat hautatzeko.

Ane Egidazuk esan dio Aimarri data horretarako erantzun bat edukiko dutela.

Hondakinen gaiaren inguruan Aimarrek proposatu du hondakinen mahaia eratzea.

Cristobal del Corte Zinegotziak erantzun dio, bilera egin daitekeela eta hor erabaki mahaia eratzea beharrezkoa ote den eta Mankomunitatearekin modu koordinatu batean lan egin.

Auzokonpostaren inguruan galdetu du Aimarrek, izan ere, jende askok eman du izena eta bultzatu egin beharko litzatekeela uste du.

Cristobal del Corte Zinegotziak erantzun dio, gaia lantzeke dagoela eta akaso hondakinen mahaian landu ahal den gaia izan daitekeela. Gune berri bat jarri nahi dela eta usain txarrei buruzko kexak egon direla mahairatu du.

Hondakinen gaiaren harira Ane Egidazu zinegotziak esan du, kanpaina bat egin beharko litzatekeela, jendeak edozein gauza edozein egunetan ateratzen baitu.

Jose Luis Albizu zinegotziak bi eskaera dauzka. Batetik, Lurreldebuseko autobusei dagokionez, geltoki formalik ez dutela esan du eta bi geltoki kendu dituela azaldu du. Bestetik, eta Euskotrenek



## DEBAko UDALA

ematen duen zerbitzuaren inguruan esan du, aurten Donostian ekintza kultural gehiago egongo direla kontuan edukita, gabez ere zerbitzua egon beharko litzatekeela orain ematen den zerbitzua 9:30etan amaitzen baita.

Horren harira Mainer zinegotziak esan du, Debegesaren bitartez prozesu partehartzaile bat egin zela eta Lurraldeusek ordu poltsa bat egongo zela aitortu zuela.

Alkateak esan du, berak jadanik egin beharreko deiak egin dituela eta bi aste barru bilera egingo duela Euskotreneko ordezkariekin.

Alkateak azaldu du, udal txakurtegia kudeatzeko beste modu bat proposatzen duen erakunde baten idazkia jaso duela. Eskaera Mankomunitate mailan egin da, gaia Mankomunitateari baitagokio, baina udal alderdi politiko bakoitzaren zigilua nahi dute, eta alderdi horiek beraien laguntza adieraztea.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko urtarrilaren 28a



**IDAZKARIA**